

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko apirilaren 17tik apirilaren 21erako astea

---

## **INGURU MAKROA:**

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

## **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: KPI EUROGUNEA



### Datuaren analisia

Eurogunean, urte arteko inflazio-tasa % 1,5koa izan zen martxoan, aurreko hilean baino bost hamarren gutxiago; eta, beraz, elkarren segidako sei hiletan adierazleak izandako goranzko bolada eten egin zen. Eurogunean, prezioek gora egin zuten martxoan: energia % 7,4 garestitu zen, otsaileko % 9,3ko igoeraren aldean, eta elikagai freskoak % 3,1 igo ziren, otsaileko % 5,3aren azpitik. Martxoan, urte arteko azpiko inflazio-tasa (alkoholaren eta tabakoaren prezioen bilakaera kontuan hartu gabe) % 0,7koa izan zen, aurreko hileko % 0,9aren ondoren; daturik ahulena 2016ko apiriletik.


### Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: MANUFAKTUREN ETA ZERBITZUEN PMIa



### Datuaren analisia

Alemaniako Manufakturen PMIa 58,2 puntuetaraino jaitsi bazen ere, hamarren bat aurreko datutik, aurreikusitakoa (58 puntu) baino gorago kokatu zen. Zerbitzuen PMIa, bestetik, 54,7 puntura jaitsi zen, eta aurreko hileko 55,6tik eta espero zen 55,5etik behera geratu zen. Frantzian, datuak positiboak izan ziren. Manufakturen PMIaren datua 55,1ekoa izan zen, aurreko hileko 53,3aren eta espero zen 53,1aren gaitetik. Zerbitzuen PMIa ere 57,7 puntuetaraino igo zen, aurreikuspenen (57 puntu) gaitetik eta aurreko datua baino arinki gorako. Euroguneko agregatuan, Manufakturen eta Zerbitzuen PMIaren datuak aurreikuspenen gaitetik kokatu ziren (56,8 eta 56,2, hurrenez hurren). Datu konposatua, beraz, positiboa izan zen: 56,7ra igo zen, aurreko datua eta aurreikusitakoa baino hiru hamarren gorago.


### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: INDUSTRIA-EKOIZPENA



### Datuaren analisia

Industria-ekoizpenak % 0,5 egin zuen gora martxoan, zerbitzu publikoen sorrerak ehuneko 8,6 gora egitearen ondorioz. Igoera horren atzean, sektore elektrikoaren ekoizpenaren % 8,6ko igoera daukagu, neguko hilabete nahiko epelen ondoren tenperaturek behera egitearen ondorioz. Martxoan industria-ekoizpenak izandako igoera otsailean eta urtarrilean erregistratutako datua baino handiagoa izan da, jaitsierak eman baitziren orduan. Fabrikazio-gaitasunaren erabilera, fabrikek haien baliabideak nola erabiltzen dituzten neurtzen duen indizeak, 0,3 puntu egin zuen behera, ehuneko 75,3raino iragan hilean. Industria-gaitasunaren erabilera orokorrak 0,4 puntu egin zuen gora, ehuneko 76,1eraino.

### Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### JAPONIA: PMI MANUFATURA-INDIZEA



#### Datuaren analisia

Manufakturen PMIak gora egin du apirilean, eta zortzigarren hilabetez jarraian eutsi dio gorako bideari (52,8 vs 52,4 aurretik). Osagaiei begiratuta, ekoizpenak gora egin du, eskari berriek behera egin duten bitartean, 2016ko azarotik izan duten maila apaleneraino.

#### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hileroko erostaketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
04/24	Alemania	IFO enpresen egoera	112.4
04/24	Erresuma Batua	CBI enpresa-baikortasuna	12
04/25	Japonia	YoY IPP zerbitzuak	% 0.7
04/25	Frantzia	Enpresen konfiantza	104
04/25	Espainia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
04/25	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	-% 1.4
04/25	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	123.0
04/26	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	100
04/26	Frantzia	Enplegu bila dabilzanak guztira	3446.9k
04/27	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	9.9
04/27	Espainia	Langabezia tasa	% 18.60
04/27	Espainia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 2.3
04/27	Italia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	107.4
04/27	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-3.6
04/27	Alemania	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 1.9
04/27	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.3
04/27	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 1.3
04/27	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	243k
04/27	Estatu Batuak	Egiteke dauden etxebizitzaren salmentak urte artekoa	--
04/27	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 2.2
04/24	Alemania	YoY inportazio prezioen indizea	% 6.5
04/28	Erresuma Batua	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	-7
04/28	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.3
04/28	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 3.9
04/28	Frantzia	Hiruhileko BPGd	% 0.4
04/28	Frantzia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 1.4
04/28	Frantzia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 1.2
04/28	Espainia	Hiruhileko BPGd	% 0.7
04/28	Espainia	Kontu korrontearen balantza	--
04/28	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.4
04/28	Eurogunea	Urte arteko KPIaren kalkulua	% 1.8
04/28	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 1.6
04/28	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 1.1
04/28	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	98.0

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK:

Astearen hasieran, tentsio geopolitikoek (Siria, Ipar Korea, Turkia...) eta hauteskundeek bereganatu zuten arreta. Frantziako hauteskundeen lehenengo itzuliak beldurrak airean izan ditu inbertsiogileak. Pariseko atentatuaren ondoren, egoera kezkarrienaren aukerak biderkatu ziren, hau da, muturreko bi hautagaiek bigarren itzulira aurrera egitea. Igandean arrisku hori desagertu zen, Macron zentroko hautagaiak eta Le Pen ultrasukuineko liderrak egin baitzuten aurrera. Baina asteko sorpresa Erresuma Batuak 2020rako aurreikusita zeuden hauteskundeak ekainaren 8ra aurreratu zituenean etorri zen. Albiste horren aurrean, Londreseko burtsa izan zen Europa osoan zigortuena. Horrekin guztiarekin, zuhurtzia izan zen jaun eta jabe munduko burtsetan. AEBetan, Gorakorretan eta Japonian saldo positiboarekin itxi zuten, eta European, negatiboarekin, Ibexa izan ezik.

INDICES	PRECIO	%Variación	
		Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Local)	1.419,15	0,39	4,02
IBEX 35	10.377,00	0,49	10,96
DJ EURO STOXX 50	3.440,27	-0,23	4,55
DJ STOXX 50	3.115,47	-0,99	3,49
FTSE	7.114,55	-2,91	-0,40
S&P 500	2.348,69	0,85	4,91
Dow Jones	20.547,76	0,46	3,97
NASDAQ	5.910,52	1,82	9,80
NIKKEI 225	18.620,75	1,56	-2,58
MSCI EMERGENTES (Lo	51.369,57	0,23	7,80
MEXBOL	48.967,83	0,02	7,28
BOVESPA	63.760,62	1,49	5,87
SHANGHAI	3.322,80	-2,25	2,25
Rusia Rts Moscú	1.084,17	1,03	-5,91

## ERRENTA

### FINKOA:

Frantziako igandeko hauteskundeen aurreko egunetan, Europako zor publikoak tentsioari eutsi zion, baina azken saioetan arriskuarekiko eman zen beldur txikiagoaren ondorioz, bund-ak 7 op egin zuen gora astearen amaieran, eta % 0,25eraino igo zen. Epe berean, Espainiako bonuaren errentagarritasuna ia ez zen aldatu, eta % 1,70ean itxi zuen. AEBetan, Fed-en Liburu Beixak agerian utzi zuen Estatu Batuetako ekonomiaren hobekuntza. Horrek banku zentralak interes-tasak igotzeko aurreikusitako egutegia indartzen du. Ipar Amerikako hamar urterako tasak % 2,25ean itxi zuen (+0,01op). Kreditua pixka bat hobetu zen eta bere diferentzialak estutu zituen.

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,79	0,07	-0,03
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,18	0,00	0,10
EE.UU 2 AÑOS	1,18	-0,03	-0,01
ALEMANIA 10 AÑOS	0,25	0,07	0,05
ESPAÑA 10 AÑOS	1,70	-0,01	0,31
EE.UU. 10 AÑOS	2,25	0,01	-0,20
ALEMANIA 30 AÑOS	0,97	0,05	0,03
ESPAÑA 30 AÑOS	2,92	-0,04	0,30
EE.UU. 30 AÑOS	2,90	0,01	-0,16
<b>Spread de crédito (pb)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	74,39	-2,38	2,35
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	290,68	-3,77	1,98

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Aste amaieran Frantziako hauteskundeen emaitzen inguruko zalantzak urritu zirenez, euroa sendotu egin zen. Euroak % 0,71 egin zuen gora dolarraren aldean. Hauteskundeak ekainean egingo direla iragarri ondoren, liberak % 1,45 egin zuen gora, T. May-ren gehiengoa indartuko dela aurreikusten duten inkestek bultzatuta. Yenak eta euroak atzera egin zuten, babes-aktibo papera utzita.

Divisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,07	0,71	1,38
Yen / Euro	116,53	1,03	-5,29
Libra/ Euro	0,84	-1,45	-2,21

Petrolioak beherakada handia izan zuen (-% 6,49), inbentarioen gaineko kezken ondorioz. Izan ere, AIEren arabera, azken 5 urteotako haien batez bestekotik % 10 gora daude. Gainera, AEBetako eskistoaren ekoizpenak azken bi

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	51,15	-6,49	-7,69

urtetako hazkunderik handiena izan zuen.

Oro	1.284,10	-0,12	11,44
-----	----------	-------	-------



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.